

2009/09/17

Igartubeiti Baserri Museoa "Zukua egiteko 4.300 kilo sagar behar dira Sagardo Astean"

Aspaldi egiten den bezala, oraingoan ere Sagardoaren Astea ospatuko dute Ezkio-Itsasotarrek datorren hilabetea, honetarako ekitaldiak Igartubeiti Baserri Museoan aurrera eramango direlarik.

Urtez urte geroz eta ekintza gehiago antolatzen dira festa honen inguruan, hauetan guztietan herritarrek parte hartzen dutelarik: erakusketa, antzezpena, kirikoketa...

Horrela, pasa den astean eskatu zituzten sagar bariedade desberdinetaz gain, sagar kilo ugari behar dituzte hauek ere, dolarea martxan jartzeko. Aterpean herriko sagarren erakusketa egoten da eta museoaren barruan hauekin sagardoa nola egiten den ikusteko aukera daukagu. Igartubeitiko dolarea XVII. mendekoa da eta honi esker an-tzinean sagardoa nola egiten zuten ikasi dezakegu. Sagardo Astean zehar egoten dira jo eta fuego sagardoa egiten jendeak ikus dezan, eta honetarako 4.300 kilo sagar behar dituzte antolatzaileek.

Beraz, aurrekoan egin zuten bezala, eta aurten sagar-urte eskasa dela jakinez, herritarrei laguntza eskatzen zaie kilo hauek bildu ahal izateko. Kiloa 0,35 euro ordainduko da, beraz, etxean sagarra duenak irailaren 25a baino lehen deitu beharko du Ezkio-Itsasoko udaletxera, 943 72 13 03 telefono zenbakira, izena emateko. Izena ematen dutenean gutxi gorabehera zenbat kilo eramango dituen esan beharko du. Animatu zaitezte eta zuen sagarrekin parte hartu ezazue.